



**“ARRIGORRIAGAKO
HIRIA
ANTOLATZEKO PLAN
OROKORRAREN
IRIZPIDEAK ETA
HELBURUAK
EGUNERATZEA”
DOKUMENTUARI
AURKEZTUTAKO
IRADOKIZUNEN
EBALUAZIOA ETA
TRATAMENDUA**

2008ko azaroa

AURKIBIDE OROKORRA

1. SARRERA	2
1.1. ARRIGORRIAGAKO HAPO BERRIKUSTEKO PROZESUA	2
1.2. “HAPO-REN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK EGUNERATZEA”-RI BURUZKO DOKUMENTUAREN AZALPENAREN GARAPENA	3
1.2.1. Aurkezpena Planeamenduaren Aholku Batzordeari	3
1.2.2. Herritarrei aurkeztea.....	3
1.2.3. Inkestako formularioak, esku orriak eta informazio panelak.	3
1.2.4. Informazioa eta iradokizunak udal webgunean	4
1.2.5. Jasotako iradokizunen emaitzak	4
1.3. IRADOKIZUNEN TRATAMENDUAREN DOKUMENTUAREN JATORRIA	4
1.4. IRADOKIZUNEN TRATAMENDUAREN DOKUMENTUAREN EGITURA	5
2. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK	5
2.1. IRADOKIZUNAK	5
2.2. ONARTUTAKO IRTENBIDEEN ANALISIA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	6
3. LURZORU URBANIZAEZINEKO IRIZPIDEAK ETA HELBURU OROKORRAK	6
3.1. IRADOKIZUNAK	6
3.2. ONARTUTAKO IRTENBIDEEN ANALISIA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	7
4. SISTEMA OROKORREN SAREEN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK	8
4.1. IRADOKIZUNAK	8
4.2. ONARTUTAKO IRTENBIDEEN ANALISIA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	8
5. BIZITEGI LURZORUETARAKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK	9
5.1. IRADOKIZUNAK	9
5.2. ONARTUTAKO IRTENBIDEEN ANALISIA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	9
6. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK	12
6.1. IRADOKIZUNAK	12
6.2. ONARTUTAKO IRTENBIDEEN ANALISIA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	13
7. EKIPAMENDUETARAKO ETA ESPAZIO LIBREETARAKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK	15
7.1. IRADOKIZUNAK	15
7.2. ONARTUTAKO IRTENBIDEEN ANALISIA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	15
1. ERANSKINA_HERRITARREN PARTAIDETZA TXOSTENA_2018	17
2. ERANSKINA_HAPO-REN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK EGUNERATZEKO DOKUMENTUAREN PARTAIDETZA PROZESUAN JASOTAKO IRADOKIZUNAK_2018	18
1. ERANSKINA_HERRITARREN PARTAIDETZA TXOSTENA_2018	
2. ERANSKINA_HAPO-REN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK EGUNERATZEKO DOKUMENTUAREN PARTAIDETZA PROZESUAN JASOTAKO IRADOKIZUNAK_2018	

1. SARRERA

1.1. ARRIGORRIAGAKO HAPO BERRIKUSTEKO PROZESUA

2010. urtean, arau subsidiarioak onartu eta hamar urteren buruan, zeintzuetan arau subsidiarioetan aurreikusitako jardun gehienak garatu diren, eta antolamendu tresna berriak eta legedi berria onartu ondoren, Arrigorriagako Udaleko Hirigintza Arloko politikari eta teknikari arduradunek egokitzat jo zuten udalerriko erreferentziazko hirigintza esparrua goitik behera eguneratzea. Gainera, erabat beharrezkoa zen hori; izan ere, 2/2006 Legeak, Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, xedatu zuen ezinbestekoa zela Plan Orokor eta Arau Subsidiario guztiak Lege horren zehaztapenetara egokitzea, zortzi urtean (epe hori, gerora, luzatu egin zen: beste zazpi urte).

Arrigorriagako Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Berrikuspena Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak eta EAeko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra (3/1998) Legeak eta hori garatzen zuten dekretuek definitutako markoan garatuko litzateke, hasieratik baloratzuz planteatu beharreko jarduketan ingurumen inpaktua.

Horrenbestez:

- 2010eko otsailean "Indarreko plangintzaren garapenari buruzko azterketa NNS-1999)", udalbatzan aztertu eta eztabaidatzeko.
- 2010eko uztailean "Arrigorriaga Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Aurrerapena" izeneko dokumentua aurkeztu zen.
- 2010eko urrian, Alkatetzaren Dekretuz erabaki zen "HAPOren Aurrerapena" argitaratzea eta erabaki hori hartu eta hurrengo bi hilabeteetan jendaurrean jartzea, legean aurreikusitakoari jarraituta. (Aurrerapena herritarren partaidetza prozesu zabal baten menpe jarri zen, eta prozesu horren ondoren, azkenean, HAPOa idazteko oinarriak izango diren irizpideak eta helburuak adostu ziren)
- 2011ko martxoan "Plan Orokorraren Irizpideak, Helburuak eta Alternatibak" izeneko dokumentua onartu zen. Dokumentua idazteko, berriz, kontuan hartu ziren jendaurrean jartzeko denbora tartean planteatutako iradokizunak, erakunde eta organismo publikoek egindako txostenetan planteatutako gaiak, eta udal teknikariek eta politikariek egindako gogoetak eta gomendioak.

2011ko ekainean udalaren gobernu taldeak erabaki zuen hasitako lanak aldi baterako etetea, batez ere une horretan, aurrerapenak bertan esku hartzea proposatuta zuelako, garatzen ari ziren eta aurrerapenean proposatuta bi sektore urbanizagarrietan (AR-R2 Lanbarketa eta Bentakoerrekako industri sektorea) eragina zuten bi prozesu judizialengatik.

Plan Orokorraren idazketan eta tramitazioan hartu beharreko erabakietan juridikoki segurtasunik ez zegoenez zehurtiaz jokatzeko eskatzen zuen eta horrek aldi berean gomendagarri egin zuen hasitako prozesua etetea adierazitako eremuen egoera argitu bitartean.

Plan Orokorraren irizpideak eten zirenetik, auzitegiek hainbat epai irmo eman dituzte auzian dauden bi sektore urbanizagarrien gainean, beraz, desblokeatu egin dira garantiak dituen Plan Orokor berri baterako bideak.

Hala, Plan Orokorra idazteko lanei ekin zaie berriro Arrigorriagako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrerako oinarriak izango diren Irizpideak eta Helburuak izeneko dokumentua eguneratzeko.

Aurrerapenaren dokumentua herritarren partaidetza prozesu zabal baten menpe jarri ondoren 2011n onartu ziren Arrigorriagako Plan Orokorraren Irizpideak eta Helburuak berresten dituen dokumentua da. Hau da, onartutako dokumentua ontzat ematen da baina hainbat irizpide, helburu eta alternatiba berrikusi eta doitzen dira, arrazoi hauengatik:

- Lanbarketako eta Bentakoerrekako lurzoru urbanizagarriari buruzko epai judizialetara egokitzeko.
- Plangintza errealitate fisikora egokitzeko aldaketak egiteko.
- 2011ko onarpenetik EAEn garatutako udalaz gaindiko antolamendu tresnek (lurraldekoak zein sektorialak) xedatutako zehaztapen berrietara egokitzeko.

1.2. "HAPO-REN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK EGUNERATZEA"-RI BURUZKO DOKUMENTUAREN AZALPENAREN GARAPENA

1.2.1. Aurkezpena Planeamenduaren Aholku Batzordeari

2018ko ekainaren 26an, Arrigorriagako udalbatza aretoan, Udal Planeamenduaren Aholku Batzordearen osoko bilkura elkartu zen. Aipatu Bilkuraren helburua izan zen udalerraren Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren lanen egoeraz informatzea, eta aurkezpena udaleko gobernu batzordeak, udal teknikariek eta HAPOn erredakzio taldeak egin zuten. Saioa Aholku Batzordeko kideen eta HAPOn erredakzio taldearen aurkezpen labur batekin hasi zen, eta ondoren alkateak HAPO idazteko prozesu osoaren berri eman zuen, 2010. urtean hasi zenetik data horretara arte, eta erredakzio taldeak "Arrigorriagako HAPOn Irizpideak, Helburuak eta Alternatibak eguneratzea"-ri buruzko dokumentua aurkeztu zuen. Aurkezpena amaitu eta gero, hurrengo hilabeteetan parte hartzeko garatuko ziren mekanismoez informatu zen, dokumentu hau onartu aurretik, eta ekarpenak jasotzeko mekanismoez ere Hasierako Onespenaren dokumentua prestatzeko. Saioaren amaieran galde-eskeetarako txanda egon zen.

1.2.2. Herritarrei aurkeztea

2018ko uztailaren 10ean eta 12an herritarrei irekitako bi aurkezpen egin ziren, Lonbo aretoan eta Abusuko zentro soziokulturalean, hurrenez hurren., HAPOn erredakzio taldeak, udal teknikariren laguntzaz, tramitazioaren egoera HAPO idazteko prozesuan egindako lanak azaldu zituzten, baita ere Plana onartu bitarteko hurrengo faseak ere, eta "Arrigorriagako HAPOn Irizpideak, Helburuak eta Alternatibak eguneratzea"-ri buruzko dokumentua aurkeztu zuten. Aurkezpenaren amaieran galderak eta ekarpenak egiteko txanda bat egon zen.

1.2.3. Inkestako formularioak, esku orriak eta informazio panelak.

Herritarrek parte hartzea errazteko, galdetegi bat prestatu zen, eta esku orri batzuk eta informazio panel batzuk. Informazio orriak HAPOn irizpide eta helburu eguneratuen gaineko informazio laburtua sartu zen, proposatutako alternatiben laburpen batekin batera. Esku orri informatiboa uztaileko lehen astean buzoneatu zen udalerrri osoan, galdetegiarekin batera, eta aurkezpenetara joan zirenei ere banatu zitzaion. Jendaurrean jartzeko denbora guztian herritarrek eskura izan dituzte esku orriaren zein galdetegiaren kopiak, Udaletxean zein Abusuko Zentro Soziokulturalean jarritako iradokizun ontziekin batera, galdetegiak jasotzeko, eta herritarrek egokitzat zituzten iradokizunak jasotzeko. Gainera, dokumentua errazago ulertzeko, informazio panel batzuk ere egin ziren, zeinak aipatu lokaletan egon diren ikusgai, jendaurrean jartzeko denbora guztian.

1.2.4. Informazioa eta iradokizunak udal webgunean

Uztailaren 12tik aurrera, herritarrei aurkezpen guztiak egin eta gero, udal webgunean banner berezi bat prestatu zen, HAPO berrikusteko prozesu guztian sortutako dokumentazio guztia eskuratu ahal izateko.

Gainera, online galdetegirako sarbide bat ere jarri zen, interesa zutenek planteatutako gaiei eta proposatutako alternatibei buruzko iritzia eman ahal izateko, baita ere HAPOn beste edozein alderdiri buruzko bestelako iradokizunak egiteko.

1.2.5. Jasotako iradokizunen emaitzak

Guztira 67 iradokizun jaso dira udal webgunearen eta udal lokaletan prestatutako iradokizun ontzien bitartez.

Gainera, udal erregistroaren bitartez, erredakzio taldearekin elkartzeko eskaera bat jaso zen, AR-R2 Sektoreko hitzarmen batzarraren partetik, eta beste HAPOn inguruko beste 5 iradokizun/ekarpen.

Herritarren parte hartzearen emaitza "2018 Herritarren Parte Hartze Txostena" izeneko dokumentuan jasota dago, eta dokumentu honen I. Eranskin moduan gehitu da. Halaber, 2. Eranskin moduan, jasotako inkestaren formularioen kopia ere gehitzen da, baita udal erregistroaren bitartez sartu diren iradokizunena ere.

1.3. IRADOKIZUNEN TRATAMENDUAREN DOKUMENTUAREN JATORRIA

Lurzoruaren Legeak bere 62.a artikuluan ezartzen duenez, hiri antolamenduko plan orokorren memoria osatzen duten dokumentuen artean, gutxienez, dokumentu hau egon behar da:

"Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen elementuak dakartzan informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa".

Lehen zatia Arrigorriagako Plan Orokorra idazteko oinarria izango diren **Irizpideak eta Helburuak Eguneratzea eta Birformulatzea** izeneko dokumentuan garatu da.

Dokumentu hau aipatu **Irizpideak eta Helburuak Eguneratzea eta Birformulatzea** izeneko osatzera dator, eta, biek batera, Plan Orokorra idazteko oinarriko dokumentua osatuko dute, zeina datozen hilabeteetan planteatuko den derrigorrezko Hasierako Onespena tramitzeko. Bi dokumentuak Plan Orokorren memorian sartuko dira, Lurzoruaren Legearen 62.a artikulua arabera.

Irakozizunaren Tratamenduaren inguruko dokumentu honek "Irizpideak eta Helburuak Eguneratzeko" dokumentuaren inguruan herritarrek parte hartzeko prozesuan egindako irakozizun, proposamen eta alternatibak aipatzen ditu, fase hori 2018ko uztailetik urrira bitartean garatu zelarik.

1.4. IRADOKIZUNEN TRATAMENDUAREN DOKUMENTUAREN EGITURA

Herritarrek egindako irakozizunak gaika multzokatu dira, Plan Orokorren Aurrerapenaren eta Irizpide eta Helburuen dokumentuaren egituraren arabera. Horren aurretik, desegokiak ziren irakozizunak baztertu dira, edo ez zirelako planeamenduari buruzkoak, edo alegazio partikularren izaera zutelako.

Irakozizunak gaika elkartu eta gero, azterketari ekin zaio, eta kasu bakoitzean planteatutako proposamenak justifikatu dira. Kontuan hartu diren irakozizun guztiak aztertu eta kontrastatu egin dira planeamenduen irizpideekin eta helburuekin, eta bertan sartzeko edo ez sartzeko erabakia justifikatu da.

Azkenik, irakozizunaren gai multzo bakoitzerako, horiek aztertu eta gero, beraien edukia jasotzen duten irizpideak eta helburuak sartu dira, hurrenkeraren zenbakiaren erreferentziarekin, Plan Orokorreko Irizpide, Irakozizun eta Alternatiben Eguneraketa izeneko dokumentuan, atal bakoitza errazago ulertzen laguntzeko helburuarekin.

Azkenik, jasotako irakozizun guztiak 2. Eranskinean jaso dira.

2. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

2.1. IRADOKIZUNAK

- Herritarrei emandako inkestaren formularioetan **gai transbertsaletako irizpide berriak** sartzeari buruzko iritzia galdetzen zen, 2010eko Irizpide eta Helburuen dokumentuaren nobedade moduan. Horri buruz, esan daiteke gai guztiei 6 baino nota altuagoa eman zaiela 10etik, eta puntuaziorik onena lortu duen gaia irisgarritasunarena izan dela, 6,8rekin.
- **Irisgarritasunari** dagokionez, hainbat irakozizun bat datoz Ollargan auzoko irisgarritasun arazoak aipatzean. Ondoren, irakozizun horiek laburtzen dira:
 - Igogailua behar da Ollargango pasabidearekin komunikatzeko.
 - Montefuerteko parkeko irisgarritasuna hobetu behar da, mugikortasun urritua duten pertsonak errazago iristeko.

- Abenduaren 22ko kalea oinezkoentzako segurtasunerako puntu beltz moduan markatzen da.
- Espaloia beheratzeko eskatzen da, adinekoen mugikortasuna hobetzeko.

2.2. ONARTUTAKO IRTENBIDEEN ANALISIA ETA JUSTIFIKAZIOA

- Gai transbertsaletan irizpideak sartzeari buruzko balorazioari dagokionez, erredakzio taldeak positibotzat baloratzen du herritarren erantzuna, kasu guztietan 6 puntu baino gehiagoko puntuazioa eman baitute; ondorioz, irizpide ea helburuak mantentzen dira, hau da:

3.3_Generoa

- Denbora hobeto kudeatzea
- Espazio publikoen segurtasuna

3.4_Osasuna

- Ingurumena hobetzea
- Auzo eta hiri osasungarriagoak eratzea
- Berdintasunez jokatu desoreka sozialak murrizteko
- Elikadura osasungarria sustatzea

3.5_Klima aldaketa

- Klima aldaketari erantzuteko ekintzak planteatzea

- **Irisgarritasuna hobetzeko** iradokizunak Plan Orokorreko Irizpide eta Helburuen dokumentuan proposatutako irisgarritasun eta mugikortasuneko irizpide eta helburuen barruan sartu dira.

3.2_Irisgarritasuna eta mugikortasuna

- Mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea Bide Sistema Orokorrean
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea ekipamendu eta sistema lokaletan

3. LURZORU URBANIZAEZINEKO IRIZPIDEAK ETA HELBURU OROKORRAK

3.1. IRADOKIZUNAK

Asuntze Arrigorriagako Ekologista Elkarteak hainbat iradokizun egin ditu, ondoren laburtzen direnak:

- Proposamen guztietan planteatzea **planeamendua oraingo egoeran uzteko** aukera. Zehazki, Bentakoerreka esparrua aipatzen da, faltan botatzen dutelarik alternatiba bat gaur egun dagoen bezala geratzeko.
- **Espezie inbaditzaileen** inbentarioa egitea
- **Kolore Guztietako Basoak** proposamena HAPO berrian sartzea, Pinus Radiata eta eukaliptoak paisaia monopolizatzen dutelako.
- Klimaren eta energiaren **Alkateen Ituna** udalerrian integratzea, udal instalazioak hornitzeko energiaren jatorria energia berri eta berriztagarrien bidezkoa izan dadin, eguzki panelak instalatzea eraikin publikoetan, eta udalaren zein kontratatutako enpresen parke mugikorra pixkana ibilgailu elektrikoekin osa dadin.
- **Airearen kalitatea neurtzeko estazio** bat instalatzea
- Udalerriko jarduera **lizentzien** eta irekitzen diren enpresen **erregistroa** sortzea.

3.2. ONARTUTAKO IRTENBIDEEN ANALISIA ETA JUSTIFIKAZIOA

Ondoren, Asuntze Arrigorriagako Ekologista Elkarteak egindako proposamen bakoitza aztertzen da banan-banan:

- Irizpideak eta Helburuak Eguneratzeko dokumentuak azterketarako hiru esparru berri sartzen ditu (Bentakoerreka, Ollargan eta Martiartu Frontoia-Kirolak), 2010eo dokumentuarekin alderatuta, eta horiek antolatzeke hainbat aukera proposatzen dira.

Bentakoerreka eremuan 3 aukera daude: Lehen proposamena da hiri lurzoru finkatugabeko eremu baten garapena ("Cartisa") Lehen alternatiba hori proposatu diren hiruretatik kontserbadorena da, eta, praktikan, eremua gaur egun dagoen egoeran uztea esan nahi du, hau da, ez da lurzoru berririk sailkatuko, eta daudenetatik haratago ez da jarduera ekonomikoen kopurua handituko. 1. alternatibaren helburu nagusia da eremuan dagoen egoera irregular bat legezatzeko. Zehazki, Cartisarena, 1990ean lortu baitzuen lizentzia, lurzoru urbanizagarrian, antolamendu xehaturik izan gabe.

Ollargan eremuan bi aukera proposatzen dira. Horietako lehena da, hain zuzen ere, lurrak jatorrizko egoerara lehengoratzea, hau da, lurzoru urbanizaezin bihurtzea, Trantsizioko Landa Paisaiaren kategoriarekin.

Martiartu Frontoia-Kirolak eremuan bi aukera proposatzen dira. 1. alternatiba da ekipamendu komunitario pribatu bat garatzea, gaur egungo egoeraren eta 1999ko Arau Subsidiarioen proposamenaren antzera, baina eremuko afekzio sektorialak kontuan hartuta (errepideak, URA).

- Oso interesgarritzat jo da **espezie inbaditzaileen** inbentarioa egiteko iradokizuna, baina HAPO ez da horrelako dokumentu bat egiteko tresnarik egokiena. Edonola ere, dokumentuaren hurrengo fasean, espezie exotiko inbaditzaileen kokapenari buruzko datu base publikoak kontsultatuko dira, esaterako, gbif, EEIKO inguruneten (EJ), eta kontuan hartuko da Ingurumen Ebaluazio Estrategikoan, espezie horiei buruzko hainbat neurri gehitu ahal izateko.
- HAPO berrian **Kolore Guztietako Basoak** ezartzeko proposamena ere oso interesgarritzat jotzen da, eta, ondorioz, dokumentuaren hurrengo fasean aztertuko da baso autoktonoa berreskuratzen lagunduko duen neurriren bat integratzea.

- Udalerria **Alkateen Itunen** sartzeko proposamena HAPOn kompetentzietatik kanpo dago. Edonola ere, HAPOk badu horri buruzko sentsibilitaterik, eta, horregatik, Irizpideak eta Helburuak Eguneratzeko dokumentuan, irizpide eta helburu orokorren barruan, Klima Aldaketari buruzko bat sartu da:

3.5_Klima aldaketa

- Klima aldaketari erantzuteko ekintzak planteatzea
- Beste bi proposamenak, airearen kalitatea neurtzeko estazio bat ezartzea eta jarduera eta irekitzeko lizentzien erregistroa sortzea, ez dira HAPO baten eskumena.

4. SISTEMA OROKORREN SAREEN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

4.1. IRADOKIZUNAK

Bi iradokizun aurkeztu dira azpiegiturek sortzen duten **zaratari** lotuta:

- Autobidearen eta Rezolaren ondorioz sortzen den zarata konpontzea (azken hori, batez ere), udalak egindako zarataren maparen arabera gaueko jokalekuan 60-65db-ko neurketa bat baitago, 60-65db izan behar lukeenean, Arandia Kristo zeharkaleko bizilagunei eragiten dielarik.
- Basauri herriak eta bertako auzoek lortu dute Renfek intsonorizatzeko pantaila bat instalatzea, trena herritik igarotzen denerako; Arrigorriagan ere trenaren zaratarekin bizi behar dugu, herri osoa zeharkatzen baitu; aprobeixatu liteke, Basaurik jada lortu duenez, Renferi eskatzeko Arrigorriagan ere instalatzeko. Trenen joan-etorria gero eta sarriagoa da, batez ere merkantziei dagokienez, eta konboiak gero eta zaharragoak eta zaratatsuagoak dira. Tresnaren arazoak, gehiago edo gutxiago, herri osoa molestatzen du. Pantailen kontua, zaratagatik ez ezik, segurtasunagatik ere ideia ona da.

4.2. ONARTUTAKO IRTENBIDEEN ANALISIA ETA JUSTIFIKAZIOA

Arrigorriagako Hiria Antolatzeko Plan Orokor berriak azterketa bat izango du udalerriko giroko zaratari buruz eta proposatutako planeamendu urbanistikoan duen eraginari buruz, kontuan hartuta igorpen akustiko guztiak eta esparru akustikoen Kalitate Akustikoaren Helburuak, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko 212/2012 Dekretua, urriaren 16koa, betez.

Aitzitik, azterketa hori planeamenduko proposamenei baino ez dagokie, eta ez du balio dagoeneko garatuta dauden lurzoruetarako. Dagoeneko kudeatuta dauden lurzoruetarako neurriak hartzea ez da HAPOn eskumena. Iradokizunean planteatu diren neurriak bezalakoak udalaren beste interbentzio esparru batzuetatik eskatu beharko dira.

5. BIZITEGI LURZORUETARAKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

5.1. IRADOKIZUNAK

Herritarrei emandako galdetegian honako emaitza hauek lortu dira bizitegi lurzoruetako irizpide eta helburuei dagokienez:

- Hiru lagunetik bik uste dute kalkulatu den **etxebizitza kopurua** urria dela
- **Auzoak biziberritu eta errehabilitatzeko** bultzadari dagokionez, jarduketak hurrenkera honetan lehenetsi dira: lehenik eta behin, Ollargan meatzari herria, 6,5ekin (10etik), ondoren Kubo auzoa, 6rekin, eta ondoren, 5,9 punturekin berdinduta, Grupo Salud e Higiene, Grupo Zubiondo, Coop. Papelera eta Obra Sindical del Hogar, eta azkenik Pedro Muro, 5,8rekin.
- Jasotako iradokizunen artean, udalerrian etxebizitza gehiago **errehabilitatzeko** eskatzen da, eta eskaera bat ere badago Santa Isabel-Olatxu errehabilitatu daitekeen auzo moduan sartzeko.
- **Martiaruko Kirolak Frontoiaren** ingururako proposatutako alternatiben artean, parte hartzaileen %85ek 2. aukeraren alde egin dute: Bizitegia (etxebizitza kolektiboa).
- Inkestaren emaitza gisa sartu direnez gain, iradokizun edo eskaera hauek ere egin dira, **etxebizitzaren erregimenari eta kalitateari** buruz:
 - Etxebizitza sozialak
 - Babes publikoko etxebizitzak
 - Udal etxebizitza tasatuak
 - Azalera txikiko etxebizitzak
 - Etxebizitza duinak
- Santa Isabelen **lokalak etxebizitza bihurtzea** eskatzen da.

Udal erregistroaren bitartez beste 5 iradokizun jaso dira, horietako bat bizitegi lurzoaruari buruzkoa:

- Eskatzen da **AR-R2 sektorea dirdentsifikatzeko**, aurreko tipologia eta urbanizazioa mantenduta.

5.2. ONARTUTAKO IRTENBIDEEN ANALISIA ETA JUSTIFIKAZIOA

- Bizitegi lurzorurako irizpide oroko moduan, proposatzen da lurra birdentsifikatzea, dagoen hiri lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren ahalmena optimizatzeko helburuarekin, etxebizitza gehiago hartu ahal izateko, betiere iraunkortasun eta orekaren irizpideei erreparatuta. Ildo horretan, dokumentuaren hurrengo fasean zehatz-mehatz aztertuko dira urbanizatu gabeko hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarri guztiak, etxebizitzak hartzeko ahalmena handitzeko, betiere lurralde orekaren eta iraunkortasunaren ikuspegitik.

HAPOn planifikatu beharreko etxebizitza kopuruari dagokionez, esan daiteke hurrengo fasean eguneratu egin beharko dela udalerriko bizitegi eskaintzaren kuantifikazioa, Bizitegi zenbaketarekin lotuta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatze Gidalerroak behin betiko onartzen dituen Dekretua aldatzen duen 4/2016 Dekretuaren, arabera.

Proposamen horiek Plan Orokorreko Irizpideen eta Helburuen dokumentuan bizitegi lurzorurako proposatutako irizpideen eta helburuen barruan sartzen dira:

6.1_Lehendik dagoen bizitegitarako hiri lurzorua birdentsifikatzea

- 6.1.1_Arau Subsidiarioetan planifikatutako eremuak
- 6.1.2_Aukerako lurzoru berrietako eremuak

6.2_Bizitegi lurzoru urbanizagarria birdentsifikatzea

- **Auzoak berritu eta zaharberritzeari** dagokionez, Irizpideak eta Helburuak Eguneratzeko dokumentuak honako hau sartzen du:

6.4_Auzoak berritzea eta zaharberritzea

- Auzoak berritzea eta zaharberritzea bultzatzea

Atal honetan sei auzo identifikatu dira, eta horiei Santa Isabeleko eremua gehituko zaie Irizpideak eta Helburuak Birformulatzeko eta Eguneratzeko dokumentuan, hain zuzen ere, uste delako, iradokizunetan eskatzen den bezalaxe, auzo horrek interbentzioa behar duela, bai eraikinek bai auzoaren urbanizazioak berak duten degradazio mailagatik. HAPOn erredakzioaren hurrengo fasean zehatzago aztertuko da.

Etxebizitzak zaharberritzeko iradokizunak bat datoz Plan Orokorreko irizpideekin eta helburuekin, 6.4 irizpide/helburuan islatzen denaren arabera.

- **Martiartuko Kirolak Frontoiaren** ingururako proposatutako alternatiben artean, parte 2. aukeraren alde egiten da, etxebizitza kolektiboa garatzeko.

Etxebizitzak sortzea, horietako batzuk babestuta, interes orokorrekotzat jotzen da, horixe izan delarik gehien bozkatu dena egindako parte hartze prozesuan.

Ekipamendu pribatuaren gaur egungo erabilera mantentzeko aukera baztertu egin da – kirola, ostalaritza eta apartamentu babestuak –, frogatu delako promozio pribatuak ez duela interesik partzela horren antolamendu urbanistikoan aurreikusitako zenbait jardueraren alde.

Martiartuko Kirolak Frontoi zaharraren partzelarako proposatzen da bizitegi lurzoru gisa birkalifikatzea, jarduketa pribatuaren esparruan. Lurzorua Kirolak Frontoiaren eraikineko partzelan jarduketa integratu baten bidez garatuko da, etxebizitza kolektiboaren tipologiako bizitegi erabilerak antolatzeke.

Eremua hiri lurzoru finkatugabe gisa sailkatuko litzateke, derrigorrezkoa izanik hirigintza estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuan xedatutakoa betetzea.

Proposamenaren barruan sartzen da, BFArekin koordinatuta, BI-625 errepidea bitan banatzeko beharrezkoak diren lurzoruak Bide Komunikazioen Sistema Orokor gisa kalifikatzea, eta gaur egungo sarbideak berrantolatzea, behar berrietara egokitzeko.

Arau Subsidiarioetan aurreikusita dagoen zubia kenduko litzateke (zubia Aixartetik).

Aurrekoarekin lotuta, oinezkoentzako igarobidearen ekialdean kokatuta dagoen familia bakarreko etxebizitza ordenamendutik kanpo geratzen da, BI-625 errepidea bitan banatzeko trazaduraren eraginpean baitago, eta aztertuko da bizitegirako jarduketa berrian beste inon kokatu edo sartu daitekeen.

Gainera, proposamenak berreskuratu egiten du eremu horretan errekararen eskuineko urertzeko oinezkoentzako lotura lehengoratzea ("frontoiko lursailaren" eta familia bakarrekotzako etxebizitzaren atzeko zatia), lurzoru horiek Espazio Libreen eta Berdeguneen Tokiko Sistema gisa kalifikatuz, garatu beharreko eremuaren baitan. Bertarako sarbidea hobetu egin beharko da lehendik dagoen oinezkoentzako pasabidetik, malda txikiko arrapala bat jarrita. Hala eginez gero, asko hobetuko da bere erabilera eta udalerriarekiko lotura eta integrazioa.

- Plan Orokorreko Irizpideen eta Helburuen dokumentuak irizpide/helburu hau gehitzen du, **babes erregimenen bat duten etxebizitzak gehitzeari** buruz egindako iradokizunekin bat eginda (babestuak, tasatuak, sozialak, etab.):

6.3_Etxebizitza beharrari buruzko gogoetak

- Hutsik dauden etxebizitzetan esku hartzea, inbentario zehatza eginez eta aztertuz, hutsik dauden etxebizitzak alokairuaren eta salerosketen merkatuan sartzeko
- Babes erregimenen batekin etxebizitza berriak eraikitzearen aurreikuspena
- Santa Isabel-Olatxun **lokalak etxebizitza bihurtzeko** proposamena oso interesgarria da: Ildo horretan, iritziz da beharrezkoa dela hausnarketa bat egitea udalerrian oro har, erabileraren aldaketa zein eremutan proposatu daitekeen zehazteko. Horretarako, HAPoren erredakzioaren hurrengo fasean araudi espezifiko bat garatuko da. Iradokizuna bat dator HAPoren irizpide/helbruetako batekin:

7.4_Zerbitzuen sektorea

- Zerbitzu eta merkataritzako jarduerak eta bizitegiko erabilerak bateratzea
- **AR-R2 Lanbarketa Sektorea birdentsifikatzeko** eskaerari dagokionez, esan behar da 2018ko HAPoko Irizpideak eta Helburuak Eguneratzeko dokumentuak kendu egiten duela 2011n onartutako Irizpideen eta Helburuen dokumentuan Sektorea birdentsifikatzeko egin zen proposamena, ondoren azaltzen diren arrazoiengatik:

2003an indarrean zeuden Arau Subsidiarioen eremu horretarako aldaketa puntual bat onartu zen, sektorean familia bakarrekotzako etxebizitza elkartuaren erabilera onartzeko, Lanbarketatko dentsitate txikiko bizitegirako lurzoruan, sektoreko etxebizitzaren dentsitatea handitzeko xedearekin.

Arau Subsidiarioek ezarri zuten Lanbarketa Sektorea, zeinak muga egiten duen izen bereko auzoarekin eta Salud e Higienerekin, dentsitate txikiko eraikuntza beharra jasotzeko, izan familia bakarrekotzako edo familia bikoak, antzeko ezaugarriak dituzten partzeletan, eta Salud e Higiene auzoaren jarraipen gisa.

Sektore horretan bi jarduketa urbanistiko berezituak egin dira:

Lehenik eta behin, Udalak Arau Subsidiarioen beraien aldaketa puntual batzuk egin zituen, jarduketaren sistema lankidetzarena zelako.

Testuinguru horretan, sektoreko jabeek eskatuta, Udalak Arau Subsidiarioak aldatu zituen sektore horri dagokionez, lehenik eta behin, jarduketa sistema aldatzeko, lankidetzatik konpentsaziora (2000. urtea), eta, ondoren, sektorearen aprobetxamendua handitzeko, 50 etxebizitzatik 100era pasatzeko (2004. urtea).

Halere, aipatu behar da, 2010ean sortu zen testuinguruaren barruan, eta udal planeamendu estrukturala (Arau Subsidiarioak) aldatzeko prozesua martxan zegoelarik, erredakzio taldeak berriro ere aztertu zuela sektorearen egoera, eta Aurrerapenaren dokumentuan hainbat alternatiba proposatu zituela. Horrenbestez, proposatu ziren zero alternatiba, hau da, lurzoru landa lurzoru moduan birsailkatzea, edo etxebizitza kopuru posiblea bikoiztea, edo zeukan estatusa mantentzea.

Azkenean, 2011ko otsailean onartu zen "Plan Orokorreko Irizpideen eta Helburuen" dokumentuan aukerarik anbiziotsuena hautatu zen, eta Plan Orokor berriaren erredakzio taldeari proposatu zitzaion sektoreko etxebizitza kopurua 100etik 200era igotzea.

2011n Irizpideen eta Helburuen dokumentua onartu zenetik, 2012ko maiatzeko epai judiziala eman da, zeinak argitu egiten baitzuen espedientearen jarraipena formulatuta zegoen bezala, Sektoreko jabeen aurkako jarrera nabarmenarekin aldaketak egiteari dagokionez, azaleraren gehiengoa direlarik, eta Konpentsazio Batzordearen jarrera ezin zalantzazko eta jarraitua Sektorea garatzeko indarrean zegoen araudi urbanistikoaren arabera.

Kompentsazio Batzordeak Sektorearen kudeaketa urbanistikoa guztiz garatu duelarik, eta ingurune fisikoaren gainean zuzenean inolako jarduketarik hasi ez bada ere, birdentsifikatzeko proposamena kendu egin zen, ulertu zelako epai judizialari men egin behar zaiola, eta, horrenbestez, garapen urbanistikoaren tramitazioa bukatutzat jo zen, Birpartzelazio Proiektu batekin, zeina Alkatetzaren dekretu bidez onartu zen, 2012ko ekainaren 12ko datarekin, eta urbanizazio proiektua ere behin betiko onartu zen.

Iradokizunak konparazio puntu bat ezarri nahi du AR-R1arekin, baina bi egoerak arras desberdinak dira: AR-R1ean, exekuzio urbanistikoa guztiz gauzaturik dago, tramitazioak, derrigorrezko lagapenak, zuzkidura urbanistikoak, babes publikoko etxebizitzak eta urbanizazioa guztiz gauzaturik, baina AR-R2an, exekuzio materiala egiteke dago (nahiz eta birpartzelazio eta urbanizazio proiektuak behin betiko onartuta dauden), eta betebeharrak urbanistiko guztiak ere bete gabe daude.

6. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

6.1. IRADOKIZUNAK

Egindako galdeketa galdera bat sartu da, herritarren iritzia jakiteko **Bentakoerreko** eremurako proposatutako aukerei buruz.

- Inkestan parte hartu dutenek 3. aukeraren alde egin dute, goiko aldean sektorizatu gabe dagoen lurzoru urbanizagarriko sektore bat garatzeko, parte hartzaileen %25ek 2. aukeraren alde egin dute, zientean planteatzen zen "Cartisa" eta "Palets del Valle"-rako hiri lurzoru bat, eta beste %17,3 hain desarrollista ez zen aukeraren alde agertu ziren, hau da, hiri lurzoru soilik "Cartisa"-rako ezartzearen alde.

Udal erregistroaren bitartez 5 iradokizun jaso dira, eta horietatik bik jarduera ekonomikoetarako lurzoru aipatzen dute: Horietako bat Cartisa enpresa da, eta bestea Eroski S.Coop. enpresa:

- **Cartisa** enpresak **iradokizun bat aurkeztu** dut, eduki honekin:
 - Lehenik eta behin, argudiatzen du ez dagoela ados bere jarduera hartzen duen lurzoruaren tratamenduarekin, hiri lurzoru finkatugabetzat jotzen baita.
 - Bigarrenik, desadostasuna adierazten du Palets del Valle enpresarekin plan berezi batera jotzea. Iradokitzen du, eraikigarritasuna handitzea planteatzen bada, Zuzkidurazko Jarduketa baten bitartez egin dadila, HAPOrri berari gehitutako antolamendu xehearekin.

- **Eroski S.Coop.** enpresak bere titulartasunpeko lurzoruen gaineko **iradokizun bat aurkeztu** du, "Bentakoerreka" eremuan. Iradokizunak dokumentu zabal bat eransten du, non eremu horretan gertatu den prozesu urbanistiko eta judizial guztia azaltzen den, indarrean dauden Arau Subsidiarioen 9. Aldaketa puntualea egin zenetik, eta aurkeztutako iradokizuna babesteko argudio zabalak ematen ditu. Eroskik, bere iradokizunean, eskatzen du berriro hartu daitezela 2009. Urtean onartu zen indarreko Arau Subsidiarioen 9. Aldaketa Puntualeko aurreikuspenak. Horretarako, eskatzen du Irizpide eta Helburu Orokorren dokumentuko 3. Aukera hautatzeko, baina sektore batean lurzoru urbanizagarria sartuz, Arau Subsidiarioetako 9. Aldaketan ezarri ziren erregulazio eta parametroekin, hau da: Eroskiren jarduera logistikorako sektore bat sortzea, Palets del Valleko sektore industrial bat sortzea eta Cartisarako hiri lurzoru industrial bat sortzea; horrez gain, bide sistema orokor bat definitzea (sarbideak konpontzeko), lehen adierazitako esparruen garapenari atxikita, eta espazio libreen sistema orokorrak definitzea, ibaiertzean pasealeku bat eta babesguneak sortzeko.

6.2. ONARTUTAKO IRTENBIDEEN ANALISIA ETA JUSTIFIKAZIOA

BENTAKOERREKAKO LURZORU INDUSTRIALEN EGOERA URBANISTIKOA BERRAZTERTZEA

Planteatutako aukeren artetik 3. aukera proposatzea erabaki da, hau da, garapenik handiena proposatzen duena, eta beste biak barne hartzen dituen, proposamenak metagarriak baitziren.

Lehenengo alternatibaren edukia jasotzen da, bere helburua izanik eremuan dagoen egoera irregular bakarra legezztatzea; zehazki, CARTISarena, zeinak 1990ean lortu zuen lizentzia lurzoru urbanizagarrian, baina antolamendu xehaturik izan gabe.

Ezin izan zaio CARTISaren eskaerari erantzun, bere lurzoru lurzoru finkatutzat jotzeari dagokionez, izan ere, sarbideak eta ingurunea urbanizatuta egonik ere, eta beharreko hiri zerbitzuak badauzkan ere, ez du betetzen Lurzoru eta Hirigintzako 2/2206 Legean ezarritakoa (11. artikulua), dagoen urbanizazioak ez dauzkalako hartzen hirigintzako antolamenduak eskatzen dituen beharreko zuzkidurak, zerbitzuak eta azpiegiturak, edo daudenek ez dutelako antolamenduak eskatzen dituen proportzioak, dimentsioak edo ezaugarri egokiak, lurzoru horien gainean dagoen eraikuntzari edo eraikiko litzatekeenari erantzuteko.

Gaur egungo antolamendu urbanistikoan ezarritako planeamendua ez denez garatu, lurzoru mota da LURZORU URBANIZAGARRIA, eta indarrean dauden Arau Subsidiarioekin ez da lurzoru urbanizagarriaren izaera lortu.

Kokatuta dagoen gunea ez dago integratuta dagoen hiri sarean, eta, bideragarria izanik ere Plan Orokorren lurzoru horretarako hiri lurzoruaren sailkapena lortzea, 11. Artikuluaren 1.a) atalak xedatutakoa betetzen duelako, egia da baita ere antolamendu xehatu baten bitartez egin beharko dela. HAPO berriak ezarriko du antolamendu xehatua, eta horretatik eratortzen diren betebeharrak betetzeak eragingo du hiri lurzoru finkatuaren sailkapena lortu beharra, baina ez automatikoki eta antolamendu xehatu garatu gabe, CARTISAK bere idatzian adierazi duen bezala.

2. aukeraren edukia ere barneratu nahi da, PALETS DEL VALLEren lursailak hiri lurzoru finkatugabetzat sartuz, CARTISaren lursailen tratamendu berarekin. Kasu horretan, kontua ez da garapen urbanistikoa falta dela, baizik eta errealitatea antolamendu

urbanistikora egokitu behar dela. Establezimendu industrial hori Bizkaiko Foru Aldundiaren baimenarekin ezarri zen, lehen sektoreari lotutako jarduera zelako. Baina instalazioa lurzoru industrial urbanizagarriko lursailekin muga egiten duten kokapenean egin zen, eta, ondorioz, bi eremuek urbanizazio bera partekatzen dute, eta inpaktu bera paisaiari eta inguruneari dagokionez.

Horregatik, proposatzen da hiri lurzoru finkatugabeko eremu bateratu bat zehaztea "Cartisa-Palets del Valle" lurzoruetarako, sinergiak lortu ahal izateko eta eremu horren baldintzak hobetu ahal izateko, bi enpresen jardueraren arabera dimentsionatuta.

Horrez gain, proposamenak sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarriko sektore berri bat sortzea planteatzen du, Bentakoerrekako goiko aldean, udalerrian lurzoru industrialaren erreserba bat egon dadin, 2011n onartutako Irizpideekin eta Helburuekin bat etorrita. Izan ere, irizpide eta helburu horiek premia berbera hauteman zuten. Eta, gainera, bat dator lurralde eremu honetarako Jarduera Ekonomiko eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoko LPSn gomendatutakoarekin.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Errepideetako LPSn, Bentakoerrekako biribilgunea eta Usila lotuko dituen tunel baten bitartez Ugaorako sarbideak hobetzea aurreikusten jarraitzen duenez (betiere, komunikazio azpiegitura erakunde honetatik sustatzen bada), Bentakoerrekako goiko eremua, arau subsidiarioen huts egindako 9. aldaketa zehatzak dagoeneko halaxe sailkatu zuena, erabilgarria izan liteke lurzoru industrialerako gordetzeko.

Hori bai, jarduketa eremuaren ezaugarriak direla tarteko —batez ere, bere topografia berezia—, bai eta eremu horretan gorde beharreko ingurumen balioak direla tarteko ere, logikoa dirudi pentsatzea sektore horren birsailkapena eta bere egitura zehatzen definizioa egin aurretik horien bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertu beharko litzatekeela.

Halaber, kontuan hartu da eremu horren etorkizuneko garapenak bideetan izango lukeen eragina, baita sortuko litzatekeen arazoa ere Bizkaiko Foru Aldundiak lehen aipatutako bide azpiegiturak eraiki baino lehen garatuko balitz, zalantzarik gabe, azpiegitura horiek jarduerak sortu dezakeen zirkulazioaren hazkundea jasan ahal izango baitu.

Proposatzen da, beraz, lurzoru urbanizagarri sektorizatugabe gisa sailkatzea. Hala, sektore honen garapena beti izango da dagokion Sektorizazio Plana aurkeztu eta onartzearen arabera. Bertan egongo da jasota, hain justu, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 66. artikuluan bildutako dokumentazioa. Dokumentazio horren baitan, "Azterlan bat" aurkeztu beharko da "non justifikatuko den lurraldearen erabilera ereduaren iraunkortasuna eta onartutako hiri garapena, bai eta bere bideragarritasuna ere, ekimen eta kudeaketa gaitasunen arabera, eta baliabide ekonomiko eta finantza baliabide publiko zein pribatuen arabera".

Proposatutako aukera izan da, era berean, parte hartze prozesuan gehien hautatu dena.

7. EKIPAMENDUETARAKO ETA ESPAZIO LIBREETARAKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

7.1. IRADOKIZUNAK

- Herritarrei emandako inkestaren formularioetan iritzia galdetzen zen **hornidura publikoen nobedadeei** buruz: Inkestan parte hartu dutenek oso positibo baloratu dute ibaiertzeko pasealekuak sustatzeko helburua (8,1 puntu 10etik), eta La Peña UE-3 partzialki berrurbanizatzea ere, aparkaleku moduan (%71,2k aukera hori hautatu dute, eta %28,8k nahiago izan dute lurzoru ez urbanizagarri moduan lehengoratzea).
- Hainbat iradokizun daude **udalerriko aparkaleku arazo**en inguruan, eta **aparkaleku gehiago eskatzen** da.
- Oro har, ekipamendu guztien gaineko hausnarketa eskatzen da (kirol gunek, osasun zentroa, eskola, institutua...).

7.2. ONARTUTAKO IRTENBIDEEN ANALISIA ETA JUSTIFIKAZIOA

- Irizpideak eta Helburuak Eguneratzeko dokumentuak helburu/irizpide berri bat sartzen du espazio libreetarako ezarritako 8.7 zenbakiaren barruan, espazio libre berriak bultzatzeko, **ibaiertzeko pasealeku**en inguruan, guztia ala guztia txirringa eta oinezkoentzako sarerako ezarritako helburuei lotuta, ea herritarrek oso positibo baloratu dute hori; ondorioz, helburua mantendu egiten da, ea sakonago garatuko da, HAPOn hurren erredakzioaren fasean proposamen zehatzak egiteko.
- Udalerriko aparkaleku kopurua handitzeko iradokizunei dagokienez, esan behar da arazo hori, egiazki, dagoeneko detektatu zela Aurrerapenaren Fasean, ea, ondorioz, irizpide/helburu hauek ezarri zirela:

8.6_Aparkalekua

- Herriko sarbideetan aparkatzeko sistemak egitea, berriak eginez edo daudenak zabalduz
- Aparkalekurako lurzorua jartzea, bereziki bertako biztanleentzat
- Hirigunean txandakako aparkalekuak egitea proposatzea

6.1_Lehendik dagoen bizitegitarako hiri lurzorua birdentsifikatzea

- Osasun zentro, frontoi eta Renferen azpiestazio elektrikoaren ingurunean exekuzio unitate bat ezartzea

Bereziki bertako biztanleentzako aparkalekurako lurzorua jartzeari buruzko helburu/irizpidearen barruan, aukera moduan sartzen zen **La Peña UE3ko lurzoruan aparkalekurako** gunek bat antolatzea.

Ollargan auzoko etxebizitzaren ondoan dauden lursailen sortu den egoeragatik –Arau Subsidiarioetan La Peña UE-3 esan zaio alderdi horri–, hau da, lurpearen baldintza geologikoen (zuloak daude, meategien ondorioz) galarazi egin dutenez aurreikusita

zeuden etxebizitzak eraikitzea, lursail horietarako helburu bat birpentsatu behar izan da, lurraren baldintzekin koherentea izango dena.

Ollarganeko etxebizitza multzoan aparkatzeko arazo larriak daudenez, proposatzen da lursailletako batzuk (egonkortasun eta erresistentzia frogatua dutenak) gainazaleko aparkaleku publiko moduan erabiltzea, bertan bizi direnentzat, eta dagoen urbanizazioa mantentzea. Gainera, horrela erabiltzeko lurren zatia gaur egun dauden etxebizitzetatik hurbilenean daudenak dira.

Gainerako eremu guztia Espazio Libre eta Berdegune gisa gordeko litzateke.

Proposatu den aukera izan da gehien bozkatu dena parte hartze prozesuan, eta helburu zehatz moduan sartuko da irizpideak ea helburuak Eguneratu eta birformulatzeko dokumentuan.

Hasierako Onarpenerako dokumentuak aztertuko ditu proposamen zehatzak aparkaleku berriak egiteari dagokionez. Proposamen horiek hornidura publikoen sistema orokorretan edo lokaletan sartuko dira, eta kudeaketa unitate pribatu zein publikoko parte izango dira, jarduketa urbanizatzaileen barruan edo exekuzio unitateetan sartuta.

- **Ekipamendu publikoei** dagokienez, Arrigorriagako Udalak Ekipamendu Publikoen Plan Gidaria egin zuen 2015eko uztailan, eta herritarrek parte hartzeko prozesu zabal bat egin zen. Azterketa horren ondorioz, ekipamenduetarako hainbat hobekuntza lan egiten ari dira, baita berrantolatze lanak ere, nahiz eta berriztapen sakona behar duen ekipamendu bakarra Osasun Zentroa den.

Iritzia da gaur egun udalerrian ekipamendu publikorako gorde den lurzorua behar bestekoa dela.

Ildo horretan, HAPOren Irizpide eta Helburuen dokumentuan hainbat irizpide/helburu sartzen dira:

8.1_Kirol ekipamendua

- Kirol ekipamenduan dagoen egitura mantentzea

8.2_Hezkuntza Ekipamendua

- Hezkuntza erabilerarako lurzoruaren eskaintza mantentzea bigarren hezkuntzako institutuaren ingurunean

8.3_Osasun Ekipamendua

- Osasun zentro, frontoi eta Renferen azpiestazio elektrikoaren ingurunean exekuzio unitate bat definitzea

8.4_Ekipamendu Komunitarioa

- Ekipamendu komunitario publikoan dagoen egitura mantentzea

8.5_Hilerria

- Dagoen egitura mantentzea